

qwertyuiopasdfghjk

yuiopasdfghjklzxcv

bnmqwertyuiopasdf

ghjklzxcvbnmqwert

*HEZKUNTZA PROIEKTUA*

*KUETO HLHI*

*2017ko Maiatza*

yuiopasdfghjklzxcv

bnmqwertyuiopasdf

ghjklzxcvbnmqwert

yuiopasdfghjklzxcv

bnmqwertyuiopasdf

ghjklzxcvbnmqwert

yuiopasdfghjklzxcv

bnmqwertyuiopasdf

ghjklzxcvbnmqwert

1	AURKEZPENA .....	3
1.1	Ikastetxeko testuinguruaren azterketa .....	3
1.1.1	Kokapen geografikoa .....	3
1.1.2	Jarduera ekonomikoa .....	3
1.1.3	Testuinguru soziolinguistikoa.....	3
1.1.4	Eskolaren historia laburra .....	4
1.2	Irudi korporatiboa.....	5
2	PRINTZIPIOAK, BALIOAK eta NORTASUN EZAUGARRIAK .....	6
3	HELBURUAK eta LEHENTASUNAK.....	7
4	KONPETENTZIETAN OINARRITUTAKO HEZKUNTZA.....	9
4.1	Zeharkako konpetentziak.....	9
4.2	Konpetentziak: diziplina barruko oinarritzko konpetentziak eta diziplinartekoak.....	10
5	CURRICULUMAREN ETA ANTOLAMENDUAREN ESPARRUAK.....	11
5.1	Curriculumaren esparrua .....	11
5.2	Antolamenduaren esparrua .....	14
5.2.1	Koordinazio eta partaidetza organoak .....	14
5.2.2	Hezkuntza eskaintza .....	17
5.2.3	Partaidetza ereduak.....	17
	Dokumentu garrantzitsuenak.....	18
6	KONPROMISOAK.....	20

# 1. AURKEZPENA

---

## 1.1 Ikastetxeko testuinguruaren azterketa

### 1.1.1 Kokapen geografikoa

Gure eskola Sestaon dago kokatuta, Bizkaiko Ezkerraldean. Barakaldo, Portugalete eta Trapagaranekin ditu mugak. Hedaduraz, herri txikia da –3,5 kilometro karratu besterik ez– eta oso malkartsua. Lurzoru gehienak industriak hartzen ditu eta etxeak muinoaren luze-zabalean hedatzen joan dira. Sestaoko udalerriak 28.000 biztanle ditu gutxi gora-behera.

Herriak auzo bat baino gehiago ditu, eta haietako batek –bertan baikaude– ematen dio izena eskolari: Kueto.

### 1.1.2 Jarduera ekonomikoa

Sestaoko jarduera ekonomikorik garrantzitsuena industria da, eta herriko biztanleria aktiboaren bi herenak horretan egiten du lan.

Sestaon, industria birmoldaketa ugariren ondoren, badira oraindik lanean jarduten duten zenbait industria: Bizkaiko Altzairutegi Trinkoa edo ArcelorMittal Sestao; La Naval ontziola edo Construcciones Navales del Norte-SECN; eta tamaina ertaineko hainbat motatako enpresa asko, metalurgian, kimikan edo elektrizitate sekotean jarduten dutenak. Horiez gain, nabarmentzekoa da herrian daukagula Bizkaiko Ur Patzuergoaren Galindoko araztegia, Bilboko itsasadarra garbitzen duena eta eskualde osoko hondakin urak tratatzen dituen, 1990ean eraikia.

Nahiz eta azken urte hauetan berriz ahalegindu industria birmoldatzen eta harekin batera ekonomia, arlo soziala eta urbanistikoa berpizten, krisien ondorioz Euskal Autonomia Erkidegoko langabezia tasa altuena du Sestaok: % 26,2, 2013ko datuen arabera. Izan ere, Sestaoko lehengo enpresa handiak itxi edo birmoldatu egin dira: Labe Garaiak, La Naval, Babcock & Wilcox...

### 1.1.3 Testuinguru soziolinguistikoa

Euskararen presentzia urria da Sestaon. EUSTATen datuen arabera, euskaldunen portzentajea 1981etik 2011ra % 1,53tik % 18,65era pasatu da: % 17,12 egin du gora, hezkuntza sistemaren eraginez, eta, beraz, gazteen artean batez ere.

Udalak Euskararen Erabilpenaren Barneko Planak jarri ditu martxan: lehenengoa, 2007ko urtarrilaren 30eko Osoko Bilkuran onartu zen; bigarrena (2008-2012), 2009ko otsailaren 24koan; hirugarrena (2013-2017), 2014ko urtarrilaren 28koan.

Gure ikasle gehienen familiako hizkuntza gaztelania da, salbuespenak salbuespen, eta, horregatik, erraz lerratzen dira gaztelaniaz hitz egitera etxetik kanpo ere. Dena dela, eta astiro bada ere, handitzen doa euskararen erabilera familietan. Familien % 8ra ez da heltzen euskara erabiltzen dutenen portzentajea; Elkarre Autonomoan, berriz, % 23koa da batez beste. Bestalde, gainerako hizkuntzen presentzia % 14koa da Sestaon, eta EAEn, berriz, % 5,6koa batez beste.

#### 1.1.4 Eskolaren historia laburra

KUETO HLHI Haur eta Lehen Hezkuntzako eskola 1978an inauguratu zen, Carlos VII (Karlos VII.a) izenarekin. Eraikin bakarra egin zen Lehen Hezkuntzarako, geroago Haur Hezkuntzarako beste bat egiteko asmoarekin, baina ez zen inoiz egin. 1981ean, herriak sortutako Simondrogas ikastola eskolan txertatu, eta handik aurrera euskaraz ikasteko aukera eskaini zen.

Hasieran, gaztelaniazko bi lerro eta euskarazko lerro bakarra zeuden; ondoren, bi euskaraz eta bat gaztelaniaz; gaur egun, A eredia desagertuta, D eredia besterik ez da eskaintzen eskolan.

Eskolako aberastasun kulturala handia da. Familiei dagokionez, badago familia talde bat oso inplikatur dagoena, beti parte hartzeko eta laguntzeko prest, bai beren seme-alaben ikasketei jarraipena egiten, bai eskolaz kanpoko jarduerak antolatzen. Gainera, eskola ezaguna izan da hasiera-hasieratik inguruarekin duen inplikazio mailagatik eta berritzailea izateagatik.

Datu horiek guztiak kontuan izanda, ikusten da gure eskolak oso argi eduki behar duela beti berrikuntzaren, formazioaren, elkarbizitzaren eta partaidetzaren alde egin behar dela, eta horiek izan behar dutela aniztasunari erantzun egokia emateko eta emaitzak hobetzeko egiten diren ahaleginen zutabe nagusiak.

Azken urte hauetan egiten ari garen formazio planen eta berrikuntza planen helburuak puntu hauetan batu dira:

- Eskolan, metodologia eta tresna egokiak erabiliz, ikasle guztiek ahalik eta gehien garatzea beren gaitasunak.
- Irakasleen etengabeko formazioa ziurtatzea, hartzen diren erabakiak oinarri sendoetan sustraituta.
- Hizkuntza Normalizazioaren Proiektua curriculumeko proiektu guztien euskarritzat hartzea.
- Elkarbizitza, Hezkidetza, eta Harrera Planek gure eskolako harreman eta emozioen eremuetan oinarriak ipintzea, uste baitugu bizikidetza onak erraztu egiten duela ikaskuntza prozesua.
- Partaidetza bultzatzea eta komunitatearen parte sentitzea (eta, aldi berean, gizartea eskolaren parte izatea ere bai), eskolaren gizartean duen presentzia sustatuta.
- Proiektuetan parte hartzen edo pilotatzen jarraitzea: ingelesarekin lehenbailehen hastea, IKTak, SARE HEZKUNTZA, Bikaintasunerantz proiektua, Bizikidetza, Hezkidetza...

## 1.2 Irudi korporatiboa

- Eskolak web orria du, eta eskolako informazio osoa jasotzen da bertan. Uste dugu web orriaren bidez oso ondo bermatzen dela eskolaren eta gizartearen arteko komunikazioa; eta gainera erraztu egiten dela inguruarekin eragitea.



- Barneko kudeaketa intraneten bidez egiten da; hau da, barneko sare baten bidez. Erabiltzaile bakoitzak bere kontua eta karpeta ditu, eta bai bere perfilari dagozkion baimenak ere.
- Facebook eta Twitter
- Eskolako agiri ofizial guztiak idazpuru ofizialarekin egiten dira.

## **2. PRINTZIOAK, BALIOAK eta NORTASUN EZAUGARRIAK**

---

Haur eta Lehen Hezkuntzako eskola euskalduna da KUETO Eskola Publikoa, eta, aldi berean, eleaniztasunaren bultzatzailea. Gure helburua da gure ikasleak pertsona moduan garatzen laguntzea, zorientsuak izateko, eta, pertsona gisa errealizatuta, gizartean modu sortzaile eta eraginkorrean parte hartzeko.

Ikasle bakoitzak bere ahalmenak ditu, eta hezkuntza proiektuaren bidez garatu daitezke. Horregatik, pertsona solidarioak, ekintzaileak, errespetua dutenak, kritikoak eta arduratsuak izatera bideratu nahi ditugu; betiere, giro motibagarrian, maitasunezkoan, konfiantzakoan eta ziurrean.

Gainera, nahi dugu gure eskola berdinen arteko harremanak bultzatzen dituen gune bat izatea, non bakoitzaren berezitasunak (kulturalak, sozialak, linguistikoak...) errespetatu eta aberasgarritzat jotzen diren. Horrez gain, nahi dugu ikasleek barneratzea ezinbestekoa dela errespetua ingurumena errespetatzea. Bizikidetzeta eta hezkidetzeta ezinbesteko zutarrak dira gure jardunean: gatazkak, gertatuz gero, elkarrizketaren bidez konpontzen direla bermatzen dugu.

Era berean, konpromiso sendo eta iraunkorra daukagu hezkuntza berrikuntzarekin, etengabeko formazioarekin eta teknologia berrien erabilpenarekin.

Eskolako kudeaketa etengabe hobetzen joan dadin nahi dugu, talde lanarekin eta denon erantzukizunarekin; betiere, familiekin elkar hartuta, haiekiko elkarlana bilatuta, errespetuz eta konfiantzaz.

### 3. HELBURUAK eta LEHENTASUNAK

---

1. Ikasleak etorkizunerako prestatzea pertsona arduratsuak izateko, kontuan edukita beren izaera eta beren egoera pertsonala eta formazio integrala eskainita.
  - 1.1. Hezkuntza aukera sendoa eta zabala eskaintzea, gizartearen erronkei erantzuten diena, ikasleen dibertsitatea kontuan izanik.
  - 1.2. Euskararen erabilpena sustatzea, komunikazio hizkuntza izan dadin.
  - 1.3. Ikasle guztiengan ikasteko gogoak sustatzea, eta gero eta modu autonomoagoan ikasteko gaitasuna bultzatzea.
  - 1.4. Ikasleen nortasunaren erabateko garapena sustatzea, ikasi, pentsatu eta erabakiak beren kabuz hartu ditzaten lagunduta.
  - 1.5. Gaitasun altuak dituzten eta ikasteko motibatuta dauden ikasleei laguntzea, ahalik eta garaipen handienak lortzen saiatu daitezten.
  - 1.6. Eguneroko jardueretan autonomiaz jokatzeko laguntzea, beren aukerak identifikatzen eta autonomia garatzen sustatuta.
  - 1.7. Lortutako gaitasunak eguneroko bizitzan aplikatzen irakastea.
  - 1.8. Ikasle guztiei beren gaitasunak ahalik eta gehien garatzen laguntzea.
  
2. Berrikuntza bultzatzea, irakasleen prestakuntzaren bidez eta gure eskolako premiak eta testuinguruaren arabera metodologia berriak ezarrita.

Ikasketa komunitate baten parte gara, eta ikasgeletan aplikatzeko metodologiak ikertu eta diseinatzeko ditugu. Etengabeko prestakuntza hainbat modalitatetan jasotzen dugu: adituek eskainita, esperientziak trukaturik, urraskako prestakuntzaren bidez, ebaluazioaren bidez...

- 2.1. Eskolan dauden premiak eta baliabideak ikusita, irakasleei aukera ematea etengabeko prestakuntza eta berrikuntza eduki dezaten.
- 2.2. Metodologia aktiboak sustatzea, ikasleen konpetentziak garatzeko, eta globaltasuna eta diziplinartekotasuna errespetatzeko.
- 2.3. Metodologia zientifikoa bultzatzea, zehaztasunaren premiaz jabeaztea eta erabakiak datuetan eta ebidentzietan oinarrituta hartu behar direla erakustea.
- 2.4. Curriculumetan arlo hauekin lotutako zehar larriak eta programa bereziak txertatzea: besteak beste, bizikidetzak, elkarkidetzak, emozioen hezkuntza, eta iraunkortasunean eta osasunean oinarritutako bizimodurantzko heziketa.
- 2.5. Eskola berritzailea eta pedagogikoki aurreratua bultzatzea, non teknologia berriak ikasketa jardueretan txertatuta dauden, barruko zein kanpoko komunikazioetan teknologia horien erabilpena bultzatuta.

**3.** Etengabeko hobekuntza ezartzea pedagogian, antolaketan, kudeaketan eta ebaluazioan.

- 3.1. Ebaluazioaren bidez etengabeko hobekuntzarako sistema ezartzea, irakaskuntza-ikaskuntza jarduerak hobetzeko eta eskolako jarduera garrantzitsuenak hobetu eta berritzeko.
- 3.2. Irakasleak modu eraginkorrean koordinatzea, eskola emaitzen hobekuntzari eta etengabeko formazioari. lehentasuna emanda.
- 3.3. Talde lana eta ideien trukea bultzatzea.
- 3.4. Lan giro atsegina sustatzea, ilusioan eta ekimenean oinarrituta.
- 3.5. Ardurak banatzen direla errazteko, konpromisoaren eta parte hartzearen kultura bultzatzea.

**4.** Hezkuntza komunitate guztiaren parte hartzea zaintzea, eskolarekin lan egiten duten eragileekin lankidetzak, koordinazioa eta komunikazioa sakonduta, bai eta inguruko eskolekin ere.

- 4.1. Ikasle, familia, irakasle eta irakasle ez diren langileen arteko komunikazio egokia bultzatzea, eta dagokien organoetan hezkuntza komunitatearen partaide guztien iritziak kontuan hartuta.
- 4.2. Konpromisoaren eta parte hartzearen kultura sustatzea, arduren banaketa errazteko.
- 4.3. Lankidetzak sustatzea beste eskola batzuekin, elkarrekin, eta heziketarekin, kulturarekin, lanbidearekin edo gizarte harremanekin zerikusia duten herriko erakundeekin.
- 4.4. Gure baliabide materialak eta giza baliabideak ondo kudeatzea.

Gure helburua informazioa eta edukiak helaraztea baino haratago doa: gure ikasleen garapenerako beharrezkoak diren oinarrizko konpetentziak landu nahi ditugu, etorkizunean hiritar aktiboak izan daitezen eta gizartean txertatuta egon daitezen arlo eta egoera guztietan, eta etengabeko ikaskuntzan.

Horregatik, ikasleek jarrera aktiboa eduki behar dute ikasketa prozesu osoan: modu kritiko eta sortzailean lan eginda, parte hartze aktiboarekin, autonomiarekin eta ekimen pertsonalarekin, pertsonekin eta ingurunearekin konpromisoa hartuta.

Irakasleen funtsezko zeregina hau da: ikasleei laguntzea, orientatzea eta lana eta informazio bilaketa gidatzea, eta ikasteko jokalekuak diseinatzea; betiere, muntazko ikaskuntza esanguratsuen prozesuak eta esperientziak planifikatuta eta berreskuratze prozesuak planifikatuta eta ebaluatuta.



## 4. KONPETENTZIETAN OINARRITUTAKO HEZKUNTZA

### 1.3 Zeharkako konpetentziak

LORTU NAHI DEN KONPETENTZIA	DESKRIBAPENA
<p>KOMUNIKAZIOZKOA</p> <p>Ahozkoa, ahoz bestekoa eta digitala</p>	<p>Ahoz eta idatziz komunikatu, erraztasunez, autonomiaz, eta modu sortzaile eta eraginkorrean.</p> <p>Hitzezkoak ez diren kodeetan iristen den informazioa ulertu eta erabili, erraztasunez, autonomiaz eta modu eraginkorrean.</p> <p>Teknologia berriak eta sare sozialak beldurrik gabe eta zentzuz erabiltzeko gai izan, ikasteko, ondo pasatzeko, gizartean parte hartzeko eta integratzeko.</p>
<p>KRITIKOA ETA SORTZAILEA</p> <p>Pentsatzen eta ikasten ikasi.</p>	<p>Mota askotako iturrietatik informazioa bilatzeko, hautatzeko, gordetzeko eta berreskuratzeko gai izan.</p> <p>Informazioa ulertu eta gogoan gorde (pentsaera analitikoa).</p> <p>Informazioa interpretatu eta ebaluatu (pentsamendu kritikoa). ideiak eta irtenbideak aukeratu eta topatu (pentsamendu sortzailea).</p>
<p>KOOPERATIBOA</p> <p>Elkarlana</p>	<p>Taldean lan egiteko gai izan, modu kooperatiboan, kasuan kasuko rola modu aktiboan jokatu.</p> <p>Sentimenduak, nahiak eta pentsaerak modu asertiboan komunikatu, eta, aldi berean, besteek esandakoa eta adierazitakoa modu aktiboan entzun, haien sentimenduak, pentsaerak eta nahiak kontuan hartuta.</p> <p>Gizartea ezagutu, gizarteko arauen arabera jokatu, arazoak interpretatu eta erantzuna ematen ahalegindu, eta beste pertsonekin eta taldeekin elkarrekin, beren beharrak kontuan izanda.</p> <p>Gatazkak konpontzeko elkarriketa eta negoziazioa erabili.</p>
<p>AUTONOMIA ETA EKIMEN PERTSONALA</p>	<p>Gauzak norberaren kabuz egin. Ekimen prozesua tinko, eraginkor eta printzipio etikoak errespetatuta kudeatu, bizitzako egoera eta testuinguru guztietan, ideiak errealitatean gauzatzeko.</p>
<p>GAITASUN KRITIKOA / KONPROMISOA</p> <p>Izaten ikasi.</p>	<p>Pentsaera eta ikasteko era norberak erregulatu, bai eta gorputzaren funtzioak eta gorputzaren irudia, emozioak, jokaera etikoa, motibazioa eta borondatea ere, erabakitakoa eta egin beharrekoa aurrera eramateko kanpokoan mendean egon gabe.</p> <p>Autoestimua errealista eta ona izan.</p> <p>Erabakiak hartuta, dakartzaten ondorioak eta betebeharrak onartu.</p>

## 1.4 Konpetentziak: diziplina barruko oinarriko konpetentziak eta diziplinartekoak

### **Hizkuntza eta literatura komunikaziorako konpetentzia**

Euskara eta gaztelania ahoz eta idatziz erabiltzea modu egokian eta eraginkortasunez, bizitzako hainbat alorretako egoeretan.

Ingelesa eskolako egoeretan eta gizarte egoeretan modu egokian erabiltzea.

Literatura hezkuntza lantzea, nor bere burua eta inguruko mundua hobeto ezagutzeko.

### **Matematikarako konpetentzia**

Jakintza matematikoa aplikatzea eguneroko beharrak interpretatzeko, deskribatzeko, azaltzeko eta haiei erantzuteko, matematika tresnak, pentsatzeko erak eta adierazpenak erabilia.

### **Zientziarako konpetentzia**

Nork bere burua eta natura ezagutu, norberaren bizipenak eta ezaguera eta metodologia zientifikoa erabilia, konturatzeko pertsonen jokaerak zer eragin duen besteengan eta naturan, eta hori kontuan izanik erabaki arduratsuak hartzea bizitzan.

### **Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia**

Nork bere burua, bere taldea eta bizi den mundua ulertzea, gizarte zientzietako ezagutzak barneratuta, kritikoki interpretatuta eta ondoren erabilia. Arloari dagozkion metodologia eta prozedurak baliatzea, autonomiaz eta arduraz jokatuta, bizitzaren egoeretan, gizarte demokratiko, solidario eta inklusiboa sortzen laguntzeko.

### **Teknologiarako konpetentzia**

Jakintza eta teknika teknologikoak modu arduratsuan erabiltzea, arazo praktikoak konpontzeko eta bizitzan gertatzen diren hainbat arlotako behar eta nahiei erantzuna emateko.

### **Arterako konpetentzia**

**Musika eta dantza:** Ideiak eta sentimenduak sormenen bidez adieraztea eta besteen adierazpenak baloratzea, musika eta dantzari buruzko jakintzak erabilia, gozatzeko eta norberaren buruarekin eta ingurune natural eta sozialarekin harmonian bizitzeko.

**Adierazpen plastiko eta bisuala:** Plastika eta ikus-entzunezko adierazpenak sormenarekin erabilia komunikatzea, bai nor bere buruarekin, bai besteekin eguneroko bizitzako zenbait testuinguru eta egoeretan; betiere, faktore estetikoek pertsonen bizitzan eta gizartean duten garrantziaren kontzientzia izanda. Kultura artistikoa ulertzea, eskuratzea eta balioestea, norbera eta inguruko mundua ezagutzeko.

### **Konpetentzia motorra**

Gorputzaren bidez, ideiak, balioak, sentimenduak eta emozioak adieraztea, testuinguru eta bizitzaren jardueretan autonomiaz mugitzeko, modu osasuntsu eta sortzailean horrez gain, jarduera fisikoak eta kirolak eta besteen adierazpenak ondo baloratzea.

## 5. CURRICULUMAREN ETA ANTOLAMENDUAREN ESPARRUAK

---

### LERRO ESTRATEGIKOAK

#### 5.1. Curriculumaren esparrua

##### LIDERGO PEDAGOGIKOA

- ✓ Programazioa
- ✓ Emaizen azterketak
- ✓ Ebaluazioa

##### PROIEKTU ESTRATEGIKOAK

- ✓ Hizkuntza normalkuntza
- ✓ Hizkuntzen trataera integratua
- ✓ Bizikidetza eta Hezkidetza
- ✓ IKTak
- ✓ Bikaintasuna
- ✓ Metodologia eta dinamika integratzaileak
- ✓ Etengabeko prestakuntza

##### ANTOLAKETA

- ✓ Ardatz nagusia: koordinazioa
- ✓ Lantaldeen definizioa
- ✓ Txostenak berrikusi eta eguneratu

- ✓ Hobekuntza sistemak ezarri

##### PARTE HARTZEA ETA LANKIDETZA

- ✓ Programa bereziak eskolaz kanpoko eragileekin
- ✓ Lana familiekin
  - Gurasoen ordezkariak
  - Guraso Elkartea
  - Familien formazioa
- ✓ Elkarlana kanpoko eragileekin
  - Foru Aldundia
  - Udala
  - APNABI, AMUGE, ARTIZAR...
  - Boluntariorzaren batzordea
  - ...

## LIDERGO PEDAGOGIKOA

Lan pedagogikoan, gure helburu nagusia da ikasle bakoitzak oinarrizko konpetentziak ahalik eta gehien garatzea bere ahalmenak kontutan edukita. Horregatik, gure lan ildoak ikasleak bere ikaskuntzaren protagonista izatera bideratuta dago. Irakasleak ikastaldearen ezaugarriak izango ditu kontuan material egokiak aukeratzeko edo sortzeko. Irakaste-ikaste prozesuan garrantzi handikoak izango dira beste bi elementu hauek ere: talde lana eta ebaluazioa.

Hezkuntza eredu inklusiboa garatu nahi dugu, proposamen metodologiko berritzaileekin, batez ere berdinen arteko elkarlana bultzatuz, baina hezkuntza komunitateko beste eragile batzuk ere parte hartzen dutela. Ikasketa kooperatiboa estrategia metodologiko garrantzitsua izango da, nor bere ikasketak erregulatzeko, parte hartzeko, ahozko komunikazioa hobetzeko, enpatiarako...

## PROIEKTU ESTRATEGIKOAK

Eskola ikasteko gunetzat jotzen dugu. Eskolan, ikasleek aukera eduki behar dute elkarrekin bizitzen ikasteko eta beren desberdintasunean garatzeko, ikasketa prozesuaren protagonistak izanda. Curriculumean bakoitzak behar duena jasotzen duela ziurtatu behar dugu, bai eta euskarari garrantzi handia eman ere, ikaste prozesua errazten duen hizkuntza delarik.

Gure eskolan berrikuntzaren aldeko apustua egin dugu, ikerketak eta proiektuak aurrera eramanez eta metodologiak aztertuz, gure ikasleen arteko arrakala soziala eta kulturala txikitzeko. Gure asmoa da ekitatea eta aukera berdintasuna ez izatea hitz hutsak besterik, baizik eta gure eguneroko lanaren bide erakuslea.

Gure lan ildoan, arreta berezia eskaini nahi diogu eskolako giroari, ikasketa errazten duelako, eta bai emaitza hobekak lortzeko eta ikasketak errazteko tresnak bilatzeari ere.

Gure proiektuen helburua izan da (eta da) errendimendu baxua eta errendimendu altua dutenen arteko tartea txikitzea, horrek desberdintasun sozialak ere txikitzen lagunduko duelako.

Ikasten duen eskola bat izan nahi dugu (eta gara), hezkuntza integrala eskaintzen duena eta bakoitzari bere ahalmen sozial eta akademikoak ahalik eta gehien garatzen laguntzen diona. Horretarako, mota askotako ekimenak bultzatuko ditugu, gure inguru sozialekin eta gure dibertsitatearekin bat datozenak.

Illo horretan, ezin dugu ahaztu zein garrantzitsua den gaitasun digitala garatzea, euskarria moduan erabiltzeko hainbat arlotako edukiak lantzeko orduan; baita informatikaren erabilpen etikoa ere, ez bakarrik ikasketetan erabiltzean, baizik eta aisialdirako eta gizartean txertatzeko eta parte hartzeko ere bai.

## ANTOLAKETA

Eskolan, prestakuntza saio fokalizatuak hasi zirenetik, hainbat proiektutan hartu dugu parte –gehienetan modu zuzenean–, eta haien bitartez ahalegindu gara beti jarduera dinamikoak sortzen hobetzeko asmoarekin.

Mota askotako egoera eta testuinguruaren ebaluazioa gure lidergo pedagogikoa bideratu du.

Koordinazioa ezinbesteko osagaia da horretarako. Lantaldearen osaketa definitzeak eta aldika-aldika planifikatzeak lan dinamikak sortzen ditu, parte hartzea eta ardurak hartzea laguntzen dutenak.

Helburua izango da prozesuen jarraipena egitea, etorkizunean irautea eta ebaluatzea.

Barne ebaluazioaren kultura finkatzea bilatzen dugu, oso garrantzitsua baita eskola parte-hartzaile, berrikuntzaren aldekoa eta kalitatezko izango bada.

## PARTAIDETZA ETA LANKIDETZA

Partaidetza ezinbesteko ardatza da eskola hobetzeko. Familien partaidetza bultzatuta, eskolako hezkuntza proiektuaren partaide izanda, errazago lortuko dugu familiak integratzea, eta hezkuntzaren eragile eta arduradun sentituko dira.

Parte hartzeko eta komunikatzeko bideak oso garrantzitsuak dira prozesu guztian, eta, horregatik, garatzeko biderik onenak bilatuko ditugu. Partaidetza sentimenduan sakondu eta parte hartze eraginkorra bultzatu nahi dugu.

Elkarlana beharrezkoa da beste eskola batzuekin, eta elkarte eta erakundeekin, denon artean planak egin eta jarduerak antolatzeko, hobetzeko neurriak eta inklusibitateko neurriak bultzatuz eta garatuz.

Beharrezkoa da eskola hezkuntza integralaren gunea izatea, eta ingurura zabaltzea. Eskolaren proiektzioa bi norabidetan landu nahi dugu: batetik, ahaleginak eginda eskolak inguruan proiektzio handiagoa izateko, eta eskola inguruan integratzeko boluntariorantzaren papera finkatuta bestetik.

## 5.2. Antolamenduaren esparrua


### **5.2.1 Koordinazio eta partaidetza organoak**

Irakasleen eta lantalde eta organoen arteko koordinazioa eta lankidetzak Batzorde Pedagogikoaren bidez egiten da batez ere.

- ✓ Ziklo bakoitzeko tutoreek eta ziklo horretan ordu gehien dituzten espezialistek osatzen dituzte zikloko lantaldeak.
- ✓ Zuzendaritzako ordezkariak (zuzendaria eta ikasketa-burua), zikloetako koordinatzaileak, aholkulariak eta proiektuen arduradunek osatzen dute Batzorde Pedagogikoa. Bertan koordinatzen dira zikloak, eta informazioa denei banatzen zaie.

Klaustroari funtzioak kendu gabe, Batzorde Pedagogikoan hartzen dira zikloetatik iritsitako proposamenei buruzko erabakiak, eta, gainera, klaustrakide guztien iritzia jasotzen dira bertan.

- ✓ Klaustroan edo Eskola Kontseiluan eztabaidatu behar diren gaiak Batzorde Pedagogikoak eta Zuzendaritzak proposatzen dituzte.



1. Zuzendaritza Taldea


2. Pedagogia batzordea


3. Zikloak

4. Klaustroa

5. Eskola Kontseilua

### ZUZENDARITZA ETA ARDUREN ORGANIGRAMA







## 5.2.2 Hezkuntza eskaintza

Gure eskolak hezkuntza eskaintza finkoa du, bi etapatan banatua, eta maila bakoitzeko bi lerroekin.

Horrez gain, zerbitzu hauek dauzkagu:

- Jantokia
- Eskolaz kanpoko jarduerak
  - Kirolak
  - Kulturazkoak
  - Laguntzekoak: goizetako gela

## 5.2.3. Partaidetza ereduak

- Irakasleen partaidetza
  - ikasmailetako bilerak
  - zikloetako bilerak
  - batzordeak
  - Batzorde Pedagogikoa
  - Klaustroa
  - Eskola Kontseilua
  - Bilerak berritzegunearekin, beste eskola batzuetako irakasleekin eta gure ikasleekin lan egiten duten kanpoko eragileekin
  -
- Hezkuntza laguntzaileen partaidetza
  - koordinazio saio bereziak
  - koordinazioa aholkulariekin, irakasleekin eta gure ikasleekin lan egiten duten kanpoko agenteekin
  -
- Ikasleen partaidetza
  - tutoretza bilerak
  - elkarbizitza eta hezkidetzako batzordea
  - jantokiko batzordea
  - ...
- familien partaidetza
  - Geletako bilerak
  - Hiruhilekoan behin, geletako guraso delegatuekin bilera
  - Eskola Kontseilua

#### 5.2.4. Dokumentu garrantzitsuenak

- **Eskolako Hezkuntza Proiektua**

Txosten honetan, gure nortasuna, gure helburuak eta helburuok lortzeko egin dugun ibilbidea jasotzen dira. Tresna hau erabiliko dugu gure hezkuntza komunitateko kideei gure nortasunaren eta lan egiteko moduak azaltzeko.

- **Hizkuntza Normalkuntzako Proiektua**

Honen helburua da gure hizkuntza ahalik eta gehien erabiltzea eta hedatzea da.

Bertan jasotzen da euskara izango dela arlo eta eremu guztietan komunikazio hizkuntza, Gaztelania eta Ingelesa arloetan izan ezik.

Eskolako **Hizkuntza Proiektua** egin baino lehen derrigor eman beharreko pausoa da proiektu hau diseinatzea.

- **Curriculum Proiektua**

Dokumentu honetan, curriculum ofiziala gure eskora egokitzeko egindako zehaztapenak ageri dira. Programazioaz gain, helburuak eta orientabideak jasotzen dira.

- **Bizikidetzaren Plana**

Dokumentu hau denok adostuta eta denon artean sortua da, **Hezkidetzaren Planarekin** batera.

Pertsonak izaki sozialak garenez, behar-beharrezkoa da gizarte arloa kontuan edukitzea norberaren garapenerako. Beraz, landu egin behar dugu arlo hori ere, azken finean, gure jarrerekin eta ekintzekin gizartearen hobetzea lagundu dezakegu.

Gure planaren helburua da hezkuntza komunitate osoan errespetua eta sentiberatasuna balioak sustatzea, elkarrekin eta berdintasunean bizitzeko guneak sortuta. Horrela, indartu egingo da gure arteko bizikidetzaren harmonikoa, non gatazkak ikasteko aukera izango diren denontzat.

Hala, gure eskolak elkartasuneko programa eta jardueretan hartzen du parte, eta hori tutoretza saioetan lantzen dira, diziplinartekotasuna baliatuta.

Bizikidetzak bakean eta errespetuan oinarritu behar dugu. Eta, gatazkak egonez gero, bitartekariaren rola indartu, eta erasorik egon ez dadin bultzatuko da irtenbide aurkitzea, horretarako behar diren neurriak hartuta.

- **Aniztasunaren Tratatzeraren Plana**

Ikuspegi integratzaile batetik osatu da. Bertan jasotzen dira aniztasunari erantzun egokia emateko behar diren neurriak.

- Ohiko neurriak (orokorrak, curricularrak eta metodologikoak), ikasle guztiei zuzendutakoak.
- Indartze neurriak, halako neurriak behar dituzten ikasleentzat.
- Berariazko neurriak, hezkuntza premia bereziak behar dituztenentzat.

- **Harrera Plana**

Txosten honetan, eskolako lehen egunetan ikasleak hartzeko plangintza jasotzen da. Helburua ikasleen eta irakasleen arteko eta ikasleen beren arteko harremanak erraztea da, eta bai talde kohesioa indartzea ere.

Jarduera kooperatiboen diseinua biltzen du, eta hasierako balorazioak jasotzen ditu.

Eskolara datozen irakasle berriei, irakasleen harrera planak zehazten duen dokumentazioa ematen zaie: ordutegiak, programazioak, ikasleen zerrendak, eskolako funtzionamendu arauak...

- **Tutoretza Plana**

Emozioen hezkuntzan oinarritzen da, eta era bertikalean eratuta dago, zikloka.

- **Antolaketa eta Jarduera Araudia (AJA)**

Dokumentu honetan, eskolako arautegia ageri da. 2010ean berritu zen. Bertan azaltzen dira eskolako jardueraren funtzionamendua eta jantokiko arautegia ere.

## 6. KONPROMISOAK

Dokumentu hau taxutzeko, kontuan hartu dira hezkuntza komunitatearen estamentu guztien proposamenak.

Oinarrizko txosten bat izango da, bai eskolako curriculum proiektua egiterako, bai geletako programazioak egiterako.

Eskola komunitatea osatzen dugun pertsona guztiok konpromisoa hartzen dugu beteko dugula bertan jasotzen dena.

Uste dugu txosten bizia dela, eta etengabe erreferentziatzen hartuko duguna; baina, aldi berean, behar eta eskari berriei egokitzeko aukera eskaintzen duena. Beraz, beharrezkotzat jotzen den bakoitzean, ebaluatu eta berrikusi egingo da proiektua.